

Zelai eraberako belarrak erori
arkaitz emiltegi mukerrez biurtuz,
baña gogo bortitzak soberan samurtuz,
laztan zorakorrean biotzok nabari.

Biotz-muñetatikan sua dario ta
zurmur otsak baso sakon solletik.
Baña, kantu atalak matrail epeletik,
gazigezak bezela, zurdak erreta.

Gorputz ikaratuak pekatu beldurrez.
Maitemiñentzat ezta gaua orren beltza.
Biotzetan pizturik bada argikuntza,
sagar lorriñak bakarrik dira sugez.

Illunaren ixillak oro bildurik,
ezpañetan erari mozkorti gozoa
maiteki ixuriaz antoxin ardoa.
Orduak geldirik, bizitza igesik.

Otsalar

BUZTIÑEZKO AGO AU

Buztiñezko ago au nere gorputzean
banandutako ezur ilkorrei erantsiz;
maitasunezko indarrez, azirik itzean,
ixil, oinperatua, izanari etsiz.

A! noizbait niganako ametsean esna,
alkarrekiko gauak maitekiroago,
alperrik arkitu nai. Orotatik joana,
illik, eriotzatik askoz aruntzago.

Otsalar